




BAKEA EGIN BAKEAREN ALDE

Zenon Uriguen
pasiotarra

Bakea! Bake urregorria! Gaur egun, iñoiz baño geiago, barru-barrutik sortzen jaku bake-orroi sakona. Bake irrintzia mendirik mendi, auzorik auzo eta etxerik etxe dabil, intziri garratz bat bezela. Bakea ez da guda-eza. Ondo dakigu zer dan gudaotsa eta guda otza. Alde galanta dauke. Baña bata zein bestea oso izugarriak dira, eta bigarrena lar gogaitgarria. Bakeak beti izan ditu etsai amorratuak. Eta au zoramena! Bakea indarkeriz eta odolkeriz eskuratu nai izatea. Au dala-ta Euskal-errian, batez be Bilbo uriburuan, bakearen alde agerpen ederrak izan ditugu. Ghandi jauna, ortarako, eredutzat artu izan dabe. Baña talde txiki batek Ghandi'ren esakun bat erabilli dabe euren indarkeria eta burua garbitzeko. "Obe da indarkeria, koldarkeria eta joputza baño". Egia esan Ghandi'k beti jokatu eban indarkeriaren aurka, koldarkeri barik, eta joputzaren kateak nun-nai auzirik. Eta, zergaitik ez? Ghandi'ren bizitza osoa sekulako indarrik aundiena eta biziena izan zan indarkeriaren kontra. Guk esan bearko dogu: Kristo'ren indarra bere maitasuna eta zuzentasuna, bere garbitasuna eta leialtasuna agiri izan zan gizon azal-utsen eta zapaltzalleen aurrean. Baña odol tantarik ixuri barik, berea izan ezik.

BARRUTIKO BAKEA



Ghandi jauna bakearen egille eta gidaririk jatorrena izan dogu. Eta berba baten batu eta bateratu ebazan bere asmo eta jokabide guztiak: “EZ-

INDARKERIA”.

Esku artean daukot berari buruz egindako liburu mardul bat. Bertatik atera dot idazlan onen mamiña.

Ghandi'rentzat bakearen sorburua biotz barruan dago. Baña biotz barruko ondasun ori Jainkoa'gandik datorkigu. Danok gara Jaunaren seme. Sinismen onek indarkeriaren aurka mundu osoa batu bear leuke. Munduaren indarrik aundiena ez dira izkilluak edo armak, giza-emakumeen biotzak baño. Ez-indarkeria giza-semeen esku dago: umeak, gazteak, nausiak eta zarrak, Jaunagan sinistu gura ba dabe, Jainko maitetsua eta maitekorra. Ez-indarkeria lege bizia bezela artzen ba'da, gizadi osoaren ederra irabaziko dau, eta gizadi osoaren ederra indarrik zoragarriena izango da. Gizonaren indarra oñazea da, eta ez ezpatea. Sarri gogoratzen dau Kristo'ren esana: "Sartu ezpata ori bere zorroan, ezpata darabilen guztiak, ezpataz ilgo dirata". Goiz edo berandu etorriko da zigorra. Barne-muiñeko garbitasuna da biderik egokiena gure izakera gaiztoa eta anketra barriztatu eta aldatzeko. Mundu ontako ainbat eta ainbat zoritxarrek baño buruko-miñ geiago emoten dauste gizon basatien burruka gogorrak. Gizartearen ezbearrak goituten dabezanak, azi eta azi doaz barruko jatortasunean eta, baita be, gizartemaillan. Ez-indarkeria gizonak asmatu dabezan iztillu triskagarriak baño indartsuagoa da. Triskantzak eleuke euki bear zer ikusirik gizartearen lege eta jokabideetan. Naiz eta arrazoirik aundienak euki, giza-ilketa beti izango da gaiztakeri gorria eta zoroa. Indarkeri bideak ikasteko eskola bear dan lez, alantxe ikasi eta saiatu bear gara ez-indarkeria gure gogoan onartzeko.

MAIXUAREN MEZUA

"Nik ez daukot mezurik, nire mezua neure bizitza da-ta". Izan be auxe da maixutasunik jakintsuena: gure bizitza, bake eta maitasun-bizitza. Ez-indarkeriak beti dau berebiziko indarra, indar baikorra, maitasunaren indarra. Maitasunaren kemenak gorroto guztiak ezereztu bear ditu. "Iñoz, bearbada, indarkeriaren alde dagozanakin batuko naz, baña eurei zintzoro eta benaz adierazteko euren oker-bidea". "Nire bizikizuna auxe da: sekulo ez dala ondasun iraunkorrik eskuratu indarkeri bidetik". Azke bizi naz eta prest nago ilda jausteko. Baña sekulo ez dautsot iñori bizitza kenduko". Edozein erailketa, naiz eta arrazoirik aundienak euki, gizadiaren kontrako gaiztakeririk zitalena da". Bakea, egunero, egin egin bear da.

